Prest! DEUSTUALDEKO ALDIZKARIA

173 zenbakia
2016 **urria**

Prest!

BERBETAN: **RAMON BAREA** AKTOREA, ZUZENDARIA ETA PABELLÓN 6EKO KIDEA

ERREPORTAJEA: **SAN INAZIO BEISBOL KLUBA** **BARKUA:** **GARILAK 26**

TOKIKOM

167-168-169-170-171-172-

Prest! izan

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu edota norbaiti bidaltzea nahi baduzu, bete ondoko datuak eta igorri egizkiguzu.

Harpidetu urtean 25€

HONA:
Prest! aldizkaria
Ramon y Cajal 42
Deustua 48014
94 447 10 42

EDO HONA:
bilbokoaldizkariak@gmail.com

Harpidetza Txartela

Izen-abizenak:

Helbidea:

Telefonoa:

Babesleak

GOIKO ALDE Kultur Elkartea
BIHOTZ ALAI FOLKLORE DANTZA TALDEA
bekoerri kultur elkartea
DEUSTUKO IKASTOLA GURASOAK
berbaizu euskaraelkartea
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística
MIKELDI DANTZA TALDEA
DEUSTUKO JAI BATZORDEA
PARE HAUTSI DITZAGAN KATEAK
Doneperiaga Auzo Elkartea
ernai Deustua
erraldoien ondalan konpartsa
xut Kultur elektzak Propuestas culturales
intxixu kastola
GILKITXARO
Bizkaia foru aldundia diputación foral
Bilbao

173 zenbakia
2016ko urria

aurkibidea

Maitane Muñoz eta Irati Antepara — **Iritzia** — 4

Begoña Altuna — **Gureak kanpoan** — 5

erreportajea — 6
San Inazio Beisbol Kluba

60 urte bete ditu aurten San Inazio Beisbol Klubak, eta beisboleko Ohorezko Mailan lekua mantenduz egin du.

Intxixu ikastola — **Eskolak** — 10

Gerardo Bilbao, futbolari, txapeldun eta erbesteratu politikoa — **Behin batean** — 12

Zuen laguntza gabe, akabo! — **Artikulua** — 14

berbetan — 16
RAMON BAREArekin

Euskal zinearen Zinemira saria jaso berri du eta hori izan da aitzakia aktore lana pasioz bizi duen 67 urteko gizon interesgarri eta apalarekin hitz egiteko.

Lehen lur mugimenduak, 1951 — **Irudiak berbetan** — 21

harkua bete herba — 24

BERBAIZU Gure 25 urteak ospatzen hasteko: Iparralde zikloa!

SAREKADA Klik eta klik

PINTXODROMOA Deustuko Herriko taberna

KULTUR TXOTX Izaskun Araluzea Itza eta Ainhoa Herran Aldai

Prest!

Argitaratzailea:
BLB Komunikazioa Koop. Elk.
Tel: 94 447 10 42
Ramon y Cajal 42
DEUSTUA 48014
bilbokoaldizkariak@gmail.com
uriola.eus
@uriolaeus
www.facebook.com/uriolapuntueus

Zuzendaria: Lur Mallea
Erredakzioa: Jon Antolin, Olatz Arregi, Bea Medrano, Nerea Olaziregi, Ane Rotaetxe, Amaia Ruesgas, Borja Sarrionandia-Ibarra, Ane Zabala, Hektor Ortega, Jaione Ayestaran, Adriano de Mata, Nuria Arroyo, Amaia Mintegi, Itziar Fernandez
Kolaboratzaileak: Maitane Muñoz, Irati Antepara, Berta Alcalde Arrizabalaga, Izaskun Araluzea Itza, Elorri Bertso-Eskola, Patxi Gaztelumendi, Txema Luzuriaga, Deusto ikastetxea, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazioko eskola
Argazkiak: Javi Garcia - Iñigo Azkona
Publizitatea: Ninbe Moreno
Diseinua: BO5T
Maketazioa: Amaia Gil Basterretxea
Inprimategia: Antza
Ale kopurua: 2.800
Lege Gordailua: BI-571-01
ISSN: 1577 - 9017

Irati Antepara
ikaslea eta bizizalea

Herri osoa dantzan jartzea bezalakorik ez dagoelako

Esan dezaket musika gazte askoren bizitzako zatirik garrantzitsuenetakoa dela. Nire kasuan behintzat, musika nire nortasunaren ezinbesteko atal bat da. Denok pasa ditugu ordu luzeak ispiluaren aurrean dantzan, gelditu gabe, saltoka, abesten… Hauxe baitauka musikak, dugun onena ateratzen digula.

Musikaren munduari lotuta, gazteoi hainbeste gustatzen zaigun 'gaueko mundua' dator.

Gure farrek eta parrandek izaeran dakarte musikaren presentzia. Gazteok argi dugu gure herriko jaiak ez liratekeela berdina izango kontzerturen bat egon ezean. Kontzertuak, musika, dantza… geuk hauxe behar dugu noizbehinka. Gogor ikasteari utzi eta bizirik sentitu.

Arazo guztiak ahaztu, musika entzun, musika sentitu, ileak gogor astindu, lagunekin barre batzuk egin…

Eguzkia sartzearekin batera, bozgorailuak topera jarri eta herri osoa dantzan jartzea bezalakorik ez dagoelako.

Beraz, gozatu gauaz, ahalik eta gehien abestu eta ahalik eta gehien dantzatu, eguzkia azkar ateratzen baita berriro.

Maitane Muñoz Iturria
hezkitzailea eta mugimendu feministako kidea

Terapia egiten dut eta ez nahiz bakarra

Azkenengo urteetan inguruko jende nahikotxo (ni barne) terapia anitzetara joaten ari da gorputza, burua edota arima lasaitzeko asmoz: psikologoak, yoga, osteopatak… metodo ezberdinak bilatu arren, finean helburua barneko sua baretzea da.

Zer gertatzen zaigu terapiaren beharra izateko? Zer sufritu edo bizi izan dugu oreka lortu nahian ibiltzeko? Jendarte eredua izango da? Agian herri honek pairatu duen sufrimendua? Erritmo frenetikoa, ezetz ezin esana, 24 orduko militantzia, 11 lan prekario aldi berean, ezinezko koherentzia jendarte ero honetan… eta beste askok zerrenda amaigabe horri torturak gehitu behar dizkiete, gainera.

Batzuek aspaldian ondorioztatu genuen ez zela arazo pertsonala, 'zoro' gehiegi ginen zerbait puntuala izateko. Orduan, arazoa kolektiboa bada, zergatik ez eman erantzun kolektiboa?

Taldean konpartitzen ditugun zenbait espaziotan (kuadrilla, familia…) ohitura dago elkar zaintzeko. Baina zer gertatzen da militantzian? Momentura arte, eremu horretan ez gara gai izan benetan elkar-zaintzeko. *'Zer egin'-ek 'nola egin'-ek* baino garrantzia handiagoa izan du beti, norbera eta taldea bera bigarren plano batean geratu delarik.

Zergatik ez eman militantziaren esparruan erantzun kolektiboa gure buruak (eta era berean taldea bera) zaintzeko?

Ez dut uste erantzun magikorik dagoenik, hala ere, zaintzaz eta emozioez hitz egiteko tarteak eskaintzen hasi behar gara; egin behar den hori lantzeaz gain, 'nola' egin nahi dugun ere aztertzen, nahien eta beharraren arteko oreka ahaztu barik.

Gure barruko kaka guztia kolektibiza-tzeko eta politizatzeko unea heldu da: estresa, beldurra, nahien eta beharren arteko amildegia… gai-ordenen parte izaten hasi behar dira.

More, gorri eta berdeaz gain, nik Euskal Herri osasuntsu eta zoriontsu batekin amets egiten dut.

Begoña Altuna

Jatorria: Deustu
Bizitokia: Trento (Italia)
Lanbidea: Ikerlaria

“Alpeetatik kanpoko norbaitek mendizaletasuna izatea ez da oso ohikoa hemen”

Testua
Lur Mallea

Zergatik joan zara Italiara?
Doktoretza tesia egiten ari naiz eta nire ezagutzak zabaltzeko egonaldia egiten ari naiz Trenton. Urtetan egon da nire taldea hemengo talde batekin harremanetan eta eurek dagoeneko italiera eta ingeleserako egindako ikerketa batzuk euskarara nola moldatu ikastera etorri naiz.

Zelan egokitu zara?
Oso harrera ona izan dut bai lanean bai ikasle egoitzan, eta jendea orokorrean oso adeitsua da Trentino inguruan.

Zerk harritu zaitu gehien?
Egia esan, ez dago ezberdintasun handirik, ordutegietan ez bada. Oso goiz bazkaldu eta afaltzen dute hemen, eta dendek eta museoek ere beste ordutegi batzuk dituzte. Gehien kostatzen zaidana, ordea, hemen oso goiz iluntzen duela da, goiz hasten banaiz ere, eguna laburra egiten zait bizikletan ibili edo txangoak egiteko.

Zelakoa da bertako bizimodua?
Oso bizimodu lasaia daramat hemen, oinez joaten naiz lanera kirol apur bat egiteagatik (egunero 200 metroko desnibela!), lan egin, lanean bertan bazkaldu eta iluntzean etxera joaten naiz. Lan ondoak erosketak egin edo jantziak garbitzeko erabiltzen ditut. Asteburuetan joan izan naiz lankide edo pisukideekin pizza afaltzera eta txangoak egiteko ere aprobetxatu dut ez bainuen ingurua ezagutzen. Laster negua etorriko da, espero dut elurrak traba handirik ez jartzea.

Zelan bizi dira italiarrak?
Italiarrak ondo bizi direla ematen du. Trentino-Alto Adige eskualdeak nahiko autonomia du, gehien bat ekonomikoa, eta nabaritzen da zerbitzuetan; askoz ere arreta zuzenagoa ematen diete eskualdeko beharrizanei. Bestalde, ez dut hemengo prentsa asko jarraitzen, eta Erromako erabaki politikoak urrun geratzen zaizkit.

Janari italiarraren ospea merezitakoa al da?
Heldu nintzen egunean Milanen probatu nuen orain arte jan dudan pizzarik onena eta pastarik onena ere behin lantokiko jangelan hartu nuen. Horrek ez du esan nahi jandako beste pizzak eta platerak gustatu ez zaizkidanik! Baina gozamenez negar egitekorik ere ez dut jan oraindik. Dena den, italiar gazteak alperxeak direla esango nuke, pisukideekin afaldu izan dudanean pasta tomatearekin jan izan dugu, ezer berezirik ez. Hori bai, Italiako gazta piloa probatu dut, eta asko gustatu izan zaizkit, baita *speck* txerriki keztatua ere, hori ez dugu gurean!

Italiarrei buruzko topikoak egiazkoak al dira?
Nahiko berritsuak dira italiarrak bai, baina ez nuke esango lotsagabeak direnik. Ezagutu izan ditut hegoaldeko italiarrak eta horiek bai direla ‘ligoiagoak’, baina iparraldeko jende hau nahiko lasaia da alde horretatik. Sumatu dudana, ordea, mahai bueltan oso konpainia ona direla da, elkarrizketa bizia eta interesgarria mantentzeko gai dira.

Zer diote italiarrek euskalduna zarela diozunean?
Orokorrean jendeak Euskal Herria zer den badaki eta, hemen autonomia dutenez eta bi hiztun-komunitate batera bizi direnez (Alto Adigen), ez zaie gure egoera arrotzegia egiten. Anekdota bezala, nik beti ‘*Paese Basco*’ esaten dut eta harrituta begiratzen didate eurek beti ‘*Paesi Baschi*’ entzun izan dutelako. Nik ‘*Paese Basco; c’è soltanto uno*’ erantzuten diet beti. Bada, Wikipedian kontsultatu nuen eta italieraz *Paese Basco* Euskal Herriarentzat erabiltzen da eta *Paesi Baschi* Euskal Autonomia Erkidegoarentzat. Kuriosoa pluralak singularrak baino eremu txikiagoa hartzea. Dena den, gehien klimari buruz galdetzen didate eta harritu egiten dira ere Euskal Herrian mendi asko dagoela esaten diedanean, antza Alpeetatik kanpoko norbaitek mendizaletasuna izatea ez da oso ohikoa hemen.

SAN INAZIO NAZIONAL MAILAKO TALDE ONENEN ARTEAN

60 urte bete ditu aurten San Inazio Beisbol Klubak, eta beisboleko Ohorezko Mailan lekua mantenduz egin du. Euskadin kirol honetako klub bakarra dugu San Inaziokoa.

Testua
Nuria Arroyo

Argazkiak
San Inazio
Beisbol Kluba

Bilbon futbola kirolik ezagunena eta jarraituena dela badakigu, Lehen Mailan jokatzen duen Athletic taldeari esker. Baina bada beste Lehen Mailako talde bat gure artean horrenbeste protagonismo eman ez zaiona. Eta uste duguna baino gertuago daukagu. Hori da San Inazio Beisbol Taldea, aurten 60. urteurrena ospatzen duena.

San Inaziokoa Euskadin bizirik geratzen den beisbol talde bakarra dugu. Kluba sortu zen lehenengo urteetan beste batzuk ere bazeuden: Errekaldeko Iturrigorri, Abandoko San Vicente, Lertxundi Taldea, Salesianoena, La Salleko taldea, etab. Gutxinaka-gutxinaka, talde horiek guztiak desagertuz joan ziren hainbat arrazoi zirela medio, jendea faltan zegoelako, edota pertsonarik ez zegoelako jada kluba aurrera eramateko konpromisoa hartzeko prest. Beisbola ez delako futbola, ez delako hain ezaguna, ez delako hain babestua, eta horrexegatik, ez delako hain erraza indartsu mantentzea. Horren aurka borrokatu behar izan dute San Inaziokoek urteetan, bere horretan mantentzeko eta beste hainbat herrialdetan kirolik garrantzitsuena dena hemen ere ezagutzera emateko.

Bidea luzea izan da, baina bide horretan zehar lortu izan dutena itxaropentsua da.

Izan ere, Bilbon beisbol zelai bakarra dago, Errekaldeko Fango Kiroldegian dagoena. Baina zelaia ez zen eraiki 90eko hamarkadara arte.

"Txikitan auzoko kaleetan jolasten genuen, edo futbol zelaietan", dio Fernando San Andresek, klubeko lehendakariak, aurten utzi gaituen Koldo Izaguirreren lekua hartu duena. Futbol zelaian jokatzen zen futbolean eta baita beisbolean ere, neurriak hartuta eta zelaia egokituz. Errekaldeko Iturrigorri taldeak, esaterako, auzoko futbol taldearen zelai bera erabiltzen zuen, Urkixo zelaia. San Inazion berdin gertatzen zen. Taldeko jokalari ugari txikitan, beisbolean hasi aurretik, futbolean aritzen ziren, ondo aritu ere. Eta Errekaldera pasatu aurretik San Inazioko kiroldegian praktikatzen zuten.

San Inazioko auzotarrentzat beisbola oso kirol gertukoa da, auzoan eurek edo euren gurasoek edota aitona-amonak ikusi edo jolastu izan dutelako inoiz. "Beisbola betidanik ezagutu izan dut, auzoan futbolean eta beisbolean bakarrik jolasten zelako", San Andresen esanetan.

Bartzelonako Joko Olinpikoekin batera, beisbola ezagunago bilakatu zen. Joko horietan, 1992. urtean, Espainiak lehen aldiz parte hartu zuen beisbol txapelketan eta jokalarien artean baziren bilbotar batzuk ere, San Inaziokoak barne. Urte horretan bertan eraiki zen Bilbon lehen beisbol zelaia, Errekalden. Eta urteetan zehar horretan aritu dira bai Iturrigorri taldea bai San Inazioko taldea.

Azken hauek printzipioz eskatzen zutena zen zelaia San Inazion egotea, gertutasunagatik. Azken finean, jokalari gehienak auzo horretakoak izanik entrenatzeko eta jokatzeko Errekalderaino mugitu behar izatea eragozpena dela uste du San Andresek. Horregatik, Saniko kiroldegia erreformatzeko plana atera zenean, Bilboko Udalak onartu zuen atletismo pista beisbol zelai bihurtzeko proposamena. Baina Iturrigorri taldea desagertu zenean –orain dela hamar bat urte–, Udalak akordioa aldatu eta San Inazion zelaia egin ordez, Fangon jada eraikita zegoenari hobekuntzak egin zizkion, Sanikoek erabiltzeko. Ohorezko Mailan lehiatzeko moduko zelaia bihurtu zuen, maila horretan parte hartzeko zenbait arau bete behar baitira, zelaiaren ezaugarrietatik hasita. Esaterako, estatistiken taula eduki behar du zelaiak. Izan ere, Aitor Bilbao zuzendaritza taldeko kideak dioen moduan, "oso kirol

"Auzoan, kaleen artean, betidanik beisbolean jolastu da"

teknikoa da" eta partidua jarraitzeko beharrezkoa da taula. "Arauak nahiko zorrotzak dira".

Nahiz eta mailarik gorenean bosgarren postua lortu, "zoritxarrez" komunikabideek ez diote klubari –ezta kirolari ere– ia lekurik ematen. Hala ere, jende ugari doa partiduak ikustera, harmailak ikuslez betetzen dira astebururo.

Taldearen sorrera

San Inazio Kirol Elkartea 50. hamarkadaren hasieran sortu zen Pedro Alday jaunaren eskutik. Garai hartan hasi ziren Bizkaian beisboleko lehenengo ligak ere jokatzen, eta taldea laster handituz eta hobetuz joan zen. Zenbaitetan Espainiako txapelketa ezberdinetan parte hartu zuen.

70. hamarkadan taldeak zenbait oztopo izan zituen klubeko zuzendaritza aldaketak zirela eta. Baina, urte batzuk pasa eta gero, hainbat jokalari ohi elkartu ziren berriz ere elkartea aurrera ateratzeko, eta zuzendaritza talde berria osatu zuten.
80. hamarkadan, kluba Liga Nazionaleko Bigarren Mailan sartu zen senior taldearekin, eta arin-arin Lehen Mailara igotzea lortu zuen. Hor mantendu zen 90. hamarkadara arte, non berriro igo eta Ohorezko Mailan –hau da, beisbol nazionaleko mailarik altuenean– jokatzen hasi zen. Gaur egun, maila horri eusten dio, eta Espainiako beisbol talderik onenekin batera jokatzen du.

Baina ez bakarrik helduek, klubeko gazteek ere trebezia handia erakutsi dute txapelketa erregional zein nazionaletan azken urteotan, eta bada ere Iparraldeko Ligan –Lehen Mailan– jokatzen duen San Inazioko beste senior talde bat ere.

60 urte hauen inguruan hainbat aipamen egin daiteke, baina jokatutako lehen partidua nola gauzatu zen taldearentzako "pasadizorik nabarmenena" dela uste du Kepa Pocero jokalari ohiak eta klubeko zuzendaritza taldeko kideak. Izan ere, 50eko

hamarkadan, Ameriketako Estatu Batuetako marinelak Bizkaian porturatu ziren. Aisialdia euren herrialdean hain ohikoa den kirol hori praktikatzen eman ohi zuten. Egun batean, San Inazioko gazteak hurbildu zitzaizkien jolastera, eta horrela eman zen taldearen lehenengo kontaktua atzerriko jokalariekin. Partidua galdu zuten arren, esperientzia bitxia –eta zenbait bizigai– eraman zuten etxera.

Horrez gain, nazioarteko beste txapelketa askotan parte hartu du taldeak. 2004an Europako Kopa lortzeko lehiatu zen Pragan, Txekiar Errepublikan, Europako talderik onenen kontra. Gainera, urtero jokatzen du lagunarteko partidu berezi bat Toulouseko beisbol talde frantsesaren aurka.

2006an, Bizkaiko Foru Aldundiko Bizkaialde Fundazioaren eskutik, Kirol Elkarte Saria jaso zuen.

Denboraldi berriari begira

Taldea hile honetan bertan hasi da errimoa hartzen eta astearte, ostegun zein ostiraletan ikus dezakegu Fangoko zelaian entrenatzen. Denboraldia martxoan hasiko den arren, jokalariek hilabete hauek aprobetxatuko dituzte pilak jartzen hasteko. Izan ere, ligak irauten duen bitartean bi partidu jokatuko dituzte astebururo, batzuetan biak egun berean izanik. Kontuan izanda beisboleko partidu batek ez duela denbora toperik –hau da, amaitzen da sarrera guztiak egiten direnean, normalean bi ordu eta erditik gora–, lasai asko luzatu daiteke lau edo bost ordura arte. Hau gertatzen da talde batek bakarrik

irabaz dezakeelako, berdinketa badago sarrerak gehituz doaz batek irabazi arte, eta batzuetan sarreren kopurua bikoiztu daitekeela dio Bilbaok. Hori batzuentzako neketsuegia izan daiteke. Txikien mailan, aldiz, gehienez bi ordu eta erdi iraun dezake partiduak, eta sarrera gutxiago egiten dituzte.

Denboraldia Senior mailari dagokionez, abuztura arte luzatuko da, urtero bezala. Baina ikastetxeen arteko liga, zeinetan umeek eta gazteek parte hartzen duten, ikasturtearekin batera gauzatzen da.

Inor ez da jakitun jaiotzen, ezta jokalari profesionalak ere. Ezjakintasunetik hasi ziren, txikitatik jokatzen, praktikatzen. Klubak txikiei eta gazteei ere lekua egiten die beisbolean abiarazteko. Aurten, gainera, Beisboleko Federazioak onartu du nesken parte-hartzea kirol honetan, orain arte neskek ezin baitzuten beisbolean ofizialki jokatu Senior kategorian, soilik sofbolean. Emakumeei atea zabalduz, San Inaziokoek taldea mantendu eta handitu nahi dute, eta kirolaren eskaintza uste dena baino zabalagoa dela erakutsi.

Denboraldi honetatik aurrera emakumeek ere jokatu ahal izango dute beisbolean

www.renault.es / 902 333 500

RENAULT BILBO BERRI

IBILGAILU BERRI ETA BIGARREN ESKUKOEN SALMENTA
MANTENTZE ZERBITZU AZKARRA • MEKANIKA • KARROZERIA

RENAULT QUALITY MADE

WORLD V CHAMPION ENGINE

BILBO BERRI JON ARROSPIDE, 20. TEL. 94 448 39 00. DEUSTU. www.bilboberri.com

RENAULT gomendatzen du elf

RENAULT

BARATZETIK AKERRA KEN

Ortuko fruitu eta barazkiak umotu zaizkigu honez gero, urrian Intxixu ikastolan baina horretarako uda aurretik ibili behar izan gara bertoko lana birplanteatzen. Bazter honetan gaudenez geroztik izan dugu ortua ikastolan, eta elkarlana izan da hori lortzeko ardatza: gurasoena eta irakasleena. Lehendabizikoek ondu eta prestatu dute baratza eta bigarrenek, ikasleen probetxurako erabili dute. Elkarlana, bai horixe.

Testua eta argazkiak
Intxixu ikastola

Bide hori jarraituz, duela urte batzuk lehen zikloko irakasleok ortuariak izan genituen lagun, panpin bihurtuta, hainbat ekimen egiteko janari osasuntsua eta bizikidetzaren inguruan lan egiteko, batik bat. Etorkintza elkarteak eginiko materialak eta ekimenak izan ziren orduan lagungarriak ortuko zereginekin batera, biak uztartuta. Eta gaur egun ere, hortxe daukagu material hori tutoretza lana egiten jarraitzeko.

Urte luzeetan, uda hurbil eta uzta sasoirik onenean, ortuko etekinak jaso eta merkatua antolatzen genuen arratsaldean ikastolako sarreran; gurasoak euren umeen bila etorri eta etxera zerbait eramateko aukera emanez, diru gutxiren truke. Ikasleak izaten ziren saltzaileak eta saltsa horretan jardutea ere, oso motibagarria suertatzen zen. Gainera, irabazitako diru apurrarekin bagenuen tresnaren bat erosteko aukera.

Duela urte batzuk haurren liburutegiko eginkizunak martxan jarri eta gero, talde erdia

liburuzainarekin liburu eta abarretan aritzen den artean, beste talde erdia tutorearekin ortura hasi da joaten hango lanetan jardutera.

Urteak pasa eta proiektu eta antolaketa hau bertan behera inoiz utzi ez badugu ere, bizitasun barik ari zen geratzen. Bultzada bat behar zuen, birplanteamendua.

Horixe izan da bada, udan, guraso talde sutsu batek bere gain hartu duen lana, izan ere irailean bertaratu garenerako baratza, esan bezala, bere fruitu mardulak ari zaigu eskaintzen eta ikasleek hasieratik hasi dira parte hartzen bizi-bizi.

Eta eguraldi txarra denean, zer egin? Horixe izan da kezka, ez oraingoa bakarrik, sites bat egitera bultzatu gaituena. Baratzeko lanari beste buelta bat emanda, orrialde honen bitartez bultzatu, sakondu eta kanporatu nahi izan duguna.

Gure ikastolan, pasa den urtetik familia bakoitzak bere kontua dauka Googlen, gurea den domeinu baten bitartez. Hori baliatuz, ikasleek eta euren familiak propio sortu dugun sites batean sartzeko parada daukate, hain zuzen ere, Intxixu ikastolako Baratza deitu duguna. Eta bertan, hasi baino ez dugu egin, ikasleek ortuko lanen garapenak

agertzeaz gain (argazkien bitartez batez ere), irakasleok berau irakurketa-idazketa prosezua biziago bilakatzeko tresnatxo bat bezala erabili nahi dugu: esaldiak sortu, igarkizunak idatzi, olerkitxoak asmatu edo kopiatu, istorio mardulagoak idatzi nagusiagoekin... Eta guzti hori etxetik ikusgai, iruzkinen bitartez parte hartu ahal izateko.

Ikastolako gainontzekoak ere parte hartzera gonbidatuak izango gara, gainera. Eta hurrengo batean, kontatuko dizuegu noraino ailegatu garen.

ARTEBI
MUSIKA, ARTE ESZENIKO ETA IKUS-ENTZUNEZKOEN BILBOKO ESKOLA
MUSIKA - DANTZA
ANTZERKIA - GIDOIA
Jon Arrospide, 14 - 48014 Deustu-Bilbo tel: 94 475 85 33 faxa: 94 475 56 49
artebilbao@terra.es www.artebi.es

YVES ROCHER
FRANCE
Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303

GERARDO BILBAO FUTBOLARI, TXAPELDUN ETA ERBESTERATU POLITIKOA (I)

Athleticeko hamaikakorik loriatsuenetako batean jokatu zuen Gerardo Bilbao deustuarrak. Liga bi eta kopa bat irabazi zituen, horra hor uzta joria. Athleticen ez ezik, Arenasen eta Bartzelonan jokatu zuen, baita euskal selekzioarekin eta Kataluniakoarekin ere. Egindakoak egin arren, ia ezezaguna da gure artean. Segurutik, bizitzaren erdia baino gehiago Euskal Herritik kanpo eman zuelako, Venezuelan erbesteraturik.

Testua: Hektor Ortega

Ez da gomutan iltzaturik gelditu den izen horietako bat, baina Gerardo Bilbaok lau denboraldi itzel egin zituen Athleticen. Liga bi eta kopa bat irabazi zituen taldeak bitarte horretan eta klub zurigorriko mito handienetako batzuekin jokatu zuen. Horrez gain, euskal selekzioaren eta Kataluniakoaren hamaikakoetan sartu zen.

Gerardo Bilbao Bilbao Deustuan jaio zen 1907ko otsailaren 9an. Gaztetan Ribera Sport futbol taldean jokatu zuen. Soldadu joateko garaian Ferrolera bidali zuten, geroago Athleticen mito bilakatuko zen Gillermo Gorostiza santurtziarrarekin. Ferrolgo Racingen jokatu zuten gazte biek soldaduska garai hartan. Atzera etxera etorri zirenean, Gorostizak lehoiekin fitxatu zuen; Gerardo, ostera, Arenasen hasi zen jokatzen. Getxoko taldean hiru denboraldi egin zituen (1929-1932), denak Espainiako Lehenengo Mailan.

Arenasen garairik onenak igarota bazeuden ere, Leonardo Zilaurren (gero Athleticek fitxatu zuen), Emilin (Real Madrilera joan zen), Gurrutxaga (Real Madrilen jokatu zuen), Yermo eta Urresti bezalako futbolariak eduki zituen alboan. Urte haietan sailkapenaren erdialdean amaitu zuen getxoztar taldeak Liga. Gerardok lan bikaina egin zuen eta haren izena bolo-bolo hasi zen fitxaketa merkatuan.

Athleticera

1932ko irailean deustuar jokalariaren etorkizuna ahotan hartu zuten kirol kazetariek. Athleticerako bidean zegoela zirudienean, prentsak kontrako mezuak zabaldu zituen, Madrileko Athleticera edo Bartzelonara joango zela esanez. Oker zebiltzan. Urriaren 30ean debutatu zuen zurigorriz, Alavésen aurkako ligako partidan, min hartuta zegoen Roberto Etxebarriaren ordez. Zilaurren eta Mugertza eduki zituen kide zelai erdian.

Harrez gero lau denboraldi egin zituen Athleticen eta 81 partida jokatu. Lehenengo urtean

Gerardo Bilbao Arenaseko jokalaria zenean (1932)

1935-36 Ligako azken partida: Blasco, Mugerza, Zubieta, Mr. Garbutt, Roberto, Oceja, Gerardo, Elices. Makurturik: Garate, Gorostiza, Bata eta Zabala.

El equipo del Athletic, que ha ganado la Liga, con su entrenador, Mr. Garbutt.

kopa irabazi zuen, nahiz eta finala jokatu ez. Hura izan zen mister Pentlanden azken denboraldia Bilbon. Hurrengo urtean Patricio Caicedo jarri zuten entrenatzaile eta liga txapelketa eskuratu zuten zurigorriek, Real Madrili puntu biko aldea aterata. Hala urte hartan nola hurrengoan Gerardok partiden erdia-edo jokatu zituen. Bere dohainik onena, dudarik gabe, egokitzeko gaitasuna zen. Zelai erdian eta aurrealdean jokatzeko gauza zen, ezkerrean gehienbat, baina baita eskuinean ere. Deustuarrak berak kontatu zuenez, sasoi hartan sei postutan jokatu zuen Athleticeko hamaikakoetan.

Baina bere urterik onena 1935-36koa izan zen. Ligako 22 partidetatik 20 jokatu zituen (kontuan eduki orduan ez zegoela aldaketa egiterik). Mister Garbutt zegoen Athleticen entrenatzaile eta lehoiek liga irabazi zuten, Real Madrilekiko puntu biko aldea lortuta, urte bi lehenago bezala.

Gerardoren ekarpena oso garrantzitsua izan zen. Ohi bezala, zazpi lekutan jokatu zuen, zelai erdian zein eraso lerroan, nahi eskuinean nahi ezkerrean. Madrileko kazetari batek idatzi zuenez, “atezain ikusiko dugun egunean sinestuko dugu Gerardo nahikoa dela hamaikakoa osatzeko”. Lau gol sartu zituen, horietako bat San Mamesen Real Madrili 1-0 irabazteko balio izan zuena. Egun hartan ondoko hau izan zen lehoien hamaikakoa: Blasco, Zabala, Oceja, Zubieta, Mugertza, Roberto, Gorostiza, Iraragorri, Bata, Elices eta Gerardo. Hala ere, deustuarrak liga eskuratu ostean *As* egunkariko kazetariari kontatu zionez, Madrilen eskuratu zuten berdinketari (2-2) balio gehiago aitortu zion, balentria itzela izan zelako.

“Zenbat urte daramatzazu Athleticen?”, galdetu zion orduan kazetariak. “Lau urte”, erantzun zuen Gerardok, “eta hemen egongo naiz futbola utzi arte. Ni ez noa Athletic taldetik ezta bidaliko banindute ere!”. Horrela zioen, pozarren, bigarren liga irabazi berritan. Hiru hilabete geroago Espainiako eskuinak kolpe militarra jo zuen. Hondamendiaren hasiera zen.

Kalderapeko
euskal kultur gunea
www.kalderapeko.com
txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99

ZUEN LAGUNTZA GABE, AKABO!

Kaixo lagun hori,

Ekonomikoki une txarrak pasatzen ari gara Deustualdeko PREST! aldizkarian.

Aldizkariak hilero inprentan eta banaketan gastu handia sortzen du, eta PREST!-en diru sarrerak ez dira gastuen neurri berean handitu.

Publizitateak eta diru-laguntzek behera egin dute nabarmen.

Ondorioz, azken urteetan egiturazko arazo bihurtzen ari da.

PREST! kinka larrian dago eta horregatik herritarren babesa behar du. Zelan lagundu dezakezun? Egin zaitez harpidedun. Urtean 25 euro emango dituzu aldizkariak aurrera egin dezan. Bestela, eman aurten laguntza puntuala, zuk nahi duzun zenbatekoa.

PREST!-ek bere aurrekontu osoaren %7 jasotzen du bere irakurleengandik. Babes hori da indartu behar duguna kinka larri hau gainditu ahal izateko.

Jakizu, 2010/11n beste krisi handi bat bizi izan zuela PREST!-ek eta aurrera egitea lortu genuela Deustualdeko herritar eta elkarteei esker.

Oraingo honetan ere, denon babesarekin, lortuko dugu!

Eskerrik asko eta laster arte!

PREST! aldizkaria
Ramon y Cajal 42 behea
48014 Deustu
prestharpide@gmail.com
94 447 10 42

ERABAKITZEKO ESKUBIDEAREN ALDE-KOEK BOTOEN %70,7 ESKURATU DUTE

	2012	2016	2012	2016	2012	2016	2012	2016	2012	2016	2016
	EAJ PNV		EQUO Berdeak	Elkarrekin Podemos	eh bildu		PSE-EE PSOE		PP		C's Ciudadanos
Elorrieta	239	280	25	121	119	91	108	70	63	33	11
San Ignazio	2.277	2.425	223	1.088	1.020	774	1.451	814	872	637	137
Ibarrekolanda	2.073	2.210	166	772	799	596	1.269	771	861	689	155
Doneperiaga	4.845	5.118	275	1.320	1.824	1.484	1.817	1.110	1.902	1.403	219
Deustuibarra	60	49	7	41	93	82	29	10	8	6	3
Arangoiti	527	581	122	410	307	239	686	416	237	179	52

10.663 boto eskuratuta EAJ garaile atera da irailaren 25ean buruturiko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan Deustualdean.

Testua
Borja
Sarrionandia-Ibarra

Azpimarratzekoa da erabakitzeko eskubidea onartzen duten indarrek izandako gorakada, botoen %70,7 eskuratuz, orain dela lau urte baino 11 puntu gehiago. Hau da, hautestontzietara hurbildu ziren hiru pertsonatik bik babestu dute erabakitzeko eskubidea defendatzen duten alderdiren bat edo beste. Bestaldetik, PSE eta PPren atzerakadak ez du etenik eta, biak batuta, botoen %24,5 baino ez dute lortu, 2012an baino 10,66 puntu gutxiago.

2012an baino 642 bozka gehiago atera du EAJk Deustualdean. 10.663 botorekin alderdi jeltzalea garaile atera da, beste behin ere. Botoen %42,6 eskuratuta, orain dela lau urte baino 4,7 puntu gehiago eskuratu du. EAJ ia auzo guztietan izan da lehen indarra, Deustuibarran izan ezik.

Bigarren indarra Elkarrekin-Podemos bilakatu da, 3.743 boto lortuta. Aipatutako indarrak botoen erdia baino gehiago galdu du ekainetik, Espainiako hauteskundeak izan zirenetik. Ekainean Elorrietan, San Ignazio-Tellaetxen eta Arangoitin lortutako lehen postua galdu du EAJren mesedetan.

3.266 bozkekin EH Bildu hirugarren indarra izan da, 2012an bezala. Orain dela lau urte Deustuibarran lortutako lehen postuari eutsi dio, bertan botoen %40,8 lortuta. Ekainetik hona 1.128 bozka berreskuratu ditu.

Erabakitzeko eskubidea ukatzen duten alderdi politiko espainolek jipoi nabaria jaso dute, beste behin ere. PSE bigarren indarra izatetik laugarrena izatera pasatu da 2.169 bozka galdu ondoren. Lau urteotan botoen %40,4 galdu du. 2012an Arangoitin lortutako lehen postua ere galdu du, EAJren mesedetan.

2.947 botorekin (%11,8) PP bosgarren indarra izan da. Alderdi popularrak botoak galtzen jarraitzen du, 2012tik alderatuta 997 bozka gutxiago eskuratu ditu oraingo honetan.

Ciudadanos alderdiak oso emaitza apalak lortu ditu Deustun, 577 boto guztira, UPyD alderdiak 2012an lortutakotik oso gertu.

Datuak: Segurtasun Saila / Eusko Jaurlaritza

berbetan

RAMON BAREArekin

Aktorea, zuzendaria eta Pabellón 6eko kidea

Testua: Nerea Olaziregi
Argazkiak: Iñigo Azkona

“Bizirik jarraitzeko gogoa

Erriberako parkean elkartu gara Ramon Barea aktorearekin, ordu erdiko elkarrizketa izan behar zena luzatu da nahi gabe. Zinemira saria jaso berri du eta hori izan da aitzakia aktore lana pasioz bizi duen 67 urteko gizon interesgarri eta apal honekin hitz egiteko.

ematen dit antzerkiak”

Topera zabiltza Madril eta Bilbo artean. Nekatuta?

Ez, zoriontsu sentitzen naiz. Egin nahi dudana egiten dut eta nire lanbideak asetzen nau. Irailean hasi ginen *Incendios* antzezlana taularatzen Madrilen eta ordutik egunero publikoa zutik jartzea lortu dugu. Txaloak entzutean zirrara berezia sentitzen da. Gudari buruz ari gara, gure sustraien bilaketaz, eta gaiak ikuslegoa mugiarazten du. Hura ikustean, antzerkian askotan aipatzen dugun katarsia zer den ulertzen hasi naiz.

Bitartean, Zinemira euskal zinemagintza saria jaso duzu.

Bai, eta sorpresa handia izan da niretzat, ez nuen espero. Ezin izan nintzen Donostiara joan saria jasotzera, Irene Bauk jaso zuen nire izenean, baina poz handia sentitu nuen. Pertsonal mailan, maite nautela sentitu nuen, batzuetan ikusezinak garela pentsatzeko joera dugu aktoreok. Mezu asko jaso ditut, ezagun eta ezezagunenak eta indarra ematen dit ikusteak jendeak nire lana baloratzen duela, baina batez ere, Zinemirarekin nire belaunaldiko jendea saritu dutela uste dut.

“Zinemira sariarekin nire belaunaldiko jendea saritu dute”

Beraiei eskaini zenien saria.

Bai, beti egin dut lan taldean, oso berandu hasi nintzen nire izenarekin lanak sinatzen. Babestuta sentitzen naiz taldean.

Zure ondoan egondako emakumeak ere gogora ekarri zenituen eskerrak ematean.

▷ ▷ SAKONEAN

Joera bitxi bat

Aisialdian zer egiten duzu?
Lan, hori da nire bizitza. Baina azken boladan joera bitxi bat dudala aitortuko dizut, Madrilen bakarrik nagoenean batez ere. Arropa dendetara sartzen naiz, eta gehienetan sekulan jantziko ez dudan zerbaitekin amaitzen dut.

Erronka pertsonalik baduzu?
Lanean jarraitzea, telefonoak jotzen segitzea eta proposamen berriak jasotzea.

Nire bikote harremanak ez dira errazak izan. Gehienetan bikote finkoa izan dut, oso gutxitan egon naiz bakarrik, seguruenik koldarkeriagatik izan da. Beti izan dut ondoan norbait, eta emakume horiek nire konplizeak izan dira. Eskertu nahi izan diet emandako guztia, ez dut ahazten.

Atzera begiratzen duzunean zer sentitzen duzu?
Harrotasuna eta nostalgia puntu bat seguruenik. Orduan ilusio handiarekin eta diru gutxirekin hasi ginen. Lehen egiten nuena egiten jarraitzen dut.

Orain ilusio hori galdu egin dela uste duzu?
Oraindik ere badago. Gurea bokaziozko lanbidea dela uste dut. Oso gutxi bizi gara honetaz, %80 bat edo, ni zentzu horretan pribilegiatua naiz. Beti dago ziurtasun eza, eta egoera horretan pasioak mantentzen zaitu. Horrek eusten zaitu.

Zer ematen dizu antzerkiak orain?
Bizirik jarraitzeko gogoa, bizitza eta pertsona ulertzen laguntzen dit. Lasaitasuna ere, lehen zorrotzagoa nintzen eta neurona asko erre ditut bidean, batzuetan nire buruari galdetu diot ea zorroztasun horrek merezi zuen. Orain gizon nagusi bat naiz, errespetu handiagoa didatela ikusten dut,

administraziora joaten naizenean adibidez (barre egiten du).

Erretiroa noiz hartuko duzun galdetuko zizuten noizbait.

Ez dut jubilatu nahi eta erreka ondotik paseatu. 67 urte ditut eta niretzat antzeztea yoga egitea bezalakoa da. Behin hasitakoan dena kontrolpean izatea lortzen duzu: esan behar duzuna, besteak esango duena, arnasketa, gorputza, emozioak... kontzentrazio maila handia eskatzen du eta oso erlaxatuta amaitzen dut. Terapeutikoa da erabat. Artearen bitartez barruan dugun patologiaren bat bideratzen dugula uste dut. Artistok ezin dugu lan egin banketxe bateko bulego batean adibidez. Barruan dugun zerbaitek ez digu uzten.

24 urte zenituela bulegoko lan finkoa utzi eta antzerkigintzan murgildu zinen. Erabaki zaila izan zen?

Argi nituen gauzak. Nerabezaro gogorra izan nuen, ikasle txarra bilakatu nintzen; hortik etor daiteke nire patologia. Nire aitak akademia bat zuen, berehala hasi nintzen idazmakinan idazten eta bulegoetan lan egiten. Nire ama harro-harro zegoen. Antzerkia aisialdirako uzten nuen Aterpe Alai taldean. Baina egun batean urratsa ematea erabaki nuen. Lana utzi eta urte batzuetara amak bulegoagatik galdetzen jarraitzen zuen, errealitatea onartu nahi ez duen antzerkiko pertsonaia bat bezala jokatzen zuen.

Antzerkian zuen kabuz ikasi behar izan zenuten, autodidaktak beraz.

Bai, baina halabeharrez. Hemen ez zegoen irakatsi ahal zigun belaunaldirik, ezta euskal konpainiarik. Madrilera ikasten joatea pentsaezina zen. Ahal nuen guztietan bertara joaten nintzen nire ahizparen etxera. Nuen diru apurra antzokietan utzi nuen, liluratuta geratzen nintzen. Egia esateko, ez dakit nondik datorkidan grina hori, nire ama irakaslea zen eta aita musikaria.

Curriculumari garrantzia gehiegi ematen zaio gaur egun?

Baliteke. Nik nahiago dut jendea antzezten ikustea zenbat ikastaro egin dituen jakitea baino. Hala ere, aukeran, nahiago nukeen formazioz betetako curriculum bat eduki izana. Askotan kontatzen dut Bilboko Plaza Barrian txakur toreatzailea eta meza-mutila izan nintzela, nire curriculuma puztearren.

Etorkizun hurbilerako ametsik?

Une honetan bihotza Pabellón 6en dut. Entrenamendu, jolas eta sormenerako gunea da niretzat. Belaunaldien arte topaleku bikaina da. Sortu dugun gazte konpainiarengan ilusio handia dut, suposatzen dut nik izan ez nuen zerbait delako. *Romeo y Julieta* antzeztu eta gero beste proiektu bat dugu orain esku artean.

Noizko Euskal Herriko Antzerki Konpainia Nazionala?

Oraintxe bertan konpainia bat baino ekoizpen propio gehiago sortu beharko zirela uste dut, eta horretarako lege dekretu bat aterako nuke. Diru publikoarekin plataforma zabal bat sortu beharko litzateke hemengo talde profesional on batekin, EAEko hiru hiriburuetan elkarlanean aritzeko. Ez dena normala da hiriburu bakoitzean sortzen diren lan apurrak erkidego osotik ez zabaltzea. Elkarlana beharrezkoa da.

"Ez da normala hiriburu bakoitzean sortzen diren lan apurrak erkidego osotik ez zabaltzea"



GURE ESKU DAGO

Deustualdeko erronka: 2.000 boleto saltzea

Gure Esku Dago (GED) dinamikak "behar ekonomiko handia dauka", batik bat hurrengo urtean Euskal Herrian "erabakitzeko eskubidearen aldeko haizeak areagotzeko". Hori dela eta jarri du martxan 'Zu irabazle, denok irabazle' goiburua duen Urteberriko saria edo "euskal loteria". Urtarrilaren 16an, notario aurrean eginiko zozketan, 100.000 zenbakiren arteko –salmenta ondo badoa 200.000 boleto izango dira– boleto batek 30.000 euroko sari nagusia, Urteberriko saria, eskuratuko du. Beste hamar sari txiki ere banatuko ditu GEDk, 1.000 euroko hamar sari, hain zuzen ere. Bildutako dirua 2017an Euskal Herriko 100 bat herritan egingo diren galdeketek eragindako gastuak ordaintzera bideratuko du GEDk. Deustuko GEDko lantaldeak 2.000 boleto saltzeko erronka du.

ZORROTZAURRE PROIEKTUA

Obren kontratuaren etetea eta Europako diruaren iragarpena

Bilboko Udalak Deustuko Kanala irekitzeko lanen ardura zuen aldi baterako empresa-elkartearekin sinatutako kontratua balio gabe utzi du, empresa-elkarteak "kontratuko baldintzak ez betetzeagatik eta bere aldetik obrak gelditzeagatik". Esleipendunak eskatutako lanak hasi ez zituela ikusita eten du Udalak kontratua, eta obra likidatzeko prozesua hasiko du. Aldi berean, baldintza tekniko berrien pleguak prestatuko ditu Deustuko Kanalaren obra oso-osorik egiteko falta diren lanak lizitatzeko. Bestetik, aurten Europako Batzordeak 730 milioi euro emango dizkio Espainiari, hirigintza proiektuak bultzatzeko. Horietatik 9 Euskadirentzat dira eta Zorrotzaurre biziberritzeko izango dira oso-osorik. Beste 4,6 milioi Zorrotzaurren kokatuko den As Fabrik proiektuarentzat emango ditu Europako Batzordeak.

GAZTE LOKALA

Deustuko Gazte Lokalaren 25. urteurrena

Laster helduko da Deustuko Gazte Lokalaren 25. urteurren ospakizuna. Azaroaren 14tik 19ra, hain zuzen ere. 'Hegoak astintzen, txoriak askatzen' lelopean hainbat jarduera antolatu dituzte, besteak beste, dokumentalak, hitzaldiak, tailerrak, kontzertuak eta bazkari bat. Deustuko eragileek hartu dute jarduerak antolatzeko adura egunez egun. Besteak beste, ostiralean, Vinagres de Moderna taldearen kontzertua izango da eta larunbatean, azaroak 19, bazkaria. Bazkaltzeko bonoa eskuratu beharko da (Izeki eta Herriko tabernan) eta bonoarekin kamiseta bat opari jasoko dute Gazteko lagunek. Eguraldia lagun, frontoi ondoko parkean egingo dute bazkaria; euria ari badu Tintigorriren egoitzan.

Azaroak 5: dispertsioaren kontrako eguna Deustun

'Salatzen dut' kanpainaren barruan, Sare Deustuk 'Dispertsioaren kontrako eguna' antolatu du azaroaren 5erako. Eguerdiko 13:00etatik arratsaldeko 19:00ak arte ahal beste deustuar elkartu nahi dituzte Done Petri plazan, ozen eta irmo salatzeko euskal presoen dispertsioa, ezartzen zaien salbuespenzeko legedia eta preso gaixo larrien egoera.

Salaketari indarra emateko, hainbat ekimen egongo dira egunean zehar: haurrentzako puzgarriak eta tailerrak, Deustu kantari, Deustu dantzari, ekitaldia, herri bazkaria, bertsolariak, bingo solidarioa, kontzertuak, material salmenta, elkartasun argazkiak, bideo emanaldiak, dispertsioaren tunela, edariak eta pintxo solidarioak... Egunari amaiera emateko, 19:00etan manifestazioa egingo dute Deustuko kaleetan zehar, frontoitik abiatuta eta 'Dispertsioari stop! Preso gaixo larriak etxera!' leloarekin.



Urtea: 1951

Txema Luzuriaga

Lehen lur mugimenduak

1951. urtea da eta azkenik Deustuko Kanaleko obrak hasi dira; errealitate dira. Erdiko gunean ekin diote lehenik. Horregatik Gor-mutuen Kolegioaren (1892an sortua) inguruan hasi dira lurra mugitzen. Argazkian Urkiza baserria ere ikus daiteke. Kanaleko obra hauetan desagertu zen Urkiza Madariaga Bideko beste baserri batzuekin batera (Tronkoso, Laubide, Basabe, Anpetxako, Andatxako eta Irabian, ezaguna zen J. Olagortaren txakolina izateagatik).

Argazkia *Vida Vasca* aldizkarikoa (1952) da.

Segi Deustualdean euskara sustatuz. Eskerrik asko denoi!



Deustuko Kanala irekitzeko lanetan zebilen enpresarekin kontratua apurtu du Udalak “baldintzak ez betetzeagatik”. Zer deritzozu?

Inkesta: Lur Mallea

Pablo Sarriko

Txarto deritzot enpresak bere kasa obra gelditzeari eta ondo deritzot Udalak enpresarekin kontratua eteteari.

Marta Indautxu

Informazio piloa falta zaigu. Enpresaren eta Udalaren interesak daude tarteko.

Idoia Deustu

Erriberarekin maiteminduta nago. Auzoaren onerako den guztiari ondo deritzot.

Pili Begoña

Zaharrak berri. Interes ekonomikoa da jaun eta jabe eta gainerakoak ez du axola.

Unai Txurdinaga

Proiektu handiak alboratu eta txikiak babestu behar ditu Udalak.

Jon Sarriko

Nork bere interesaren alde egiten du horrelako auzietan.

>> BERBAIZU

GURE 25 URTEAK OSPATZEN HASTEKO: IPARRALDE ZIKLOA!

Udagoiena jarduerez beteko dugu Berbaizun gure aurrekaria izan zen Deustuari Euskara Dariola elkartearen mende laurdena ospatzeko. Halaxe azaldu zien zuzendaritza batzordeak Pilar egunean batzar irekira hurbildu ziren berbaizukideei.

Testua eta irudia: Berbaizu euskara elkartea

Astebete lehenago, Harkaitz Canorekin urteurrena ospatzeari hasiera eman genion Irakurleen Txokoan, udaberrira arte luzatuko dena.

Azaroan urteurrenari segida emango diogu Iparralde zikloa antolatuz, hiru saio izango dituena, eta bertoko hainbat ertz jorratuko dituzte Deustualdera hurreratuko diren gonbidatuek.

Eneko Bidegain izango da etortzen lehena eta Gerla Handiak Iparraldean izan zuen eraginaz berba izango du azaroaren 11n Mullerenean, 1918an aliatuek eta Alemaniak armistizioa sinatu zuten egunean, hain zuzen. Bere berbetan frantses izatearen sentimendua orduan errotu zen Lapurdin, Nafarroa-Beherean eta Zuberoan.

Udaberrian Ipar Euskal Herriak bere lehen egitura propioa izatea bozkatu zuen, Herriarteko Lankidetzarako Erakunde Publikoa (HELEP) izena duena, eta horren ezaugarriak zehaztuko ditu Antton Curutcharryk, Baigorriko hautetsia, azaroaren 18an Mullerenean, 'Iparraldeko dinamika berriak' izeneko mahai-inguruan. Berarekin batera, Ihintza Ostolazak Etxepare Lizeoak ekipamendu berria erosteko abian jarri duen kanpaina azalduko du. Era berean, Baigorriko Etxauzia gaztelua "Nafartarren etxea bilka dadin eta kultur proiektu zabal bat eramateko" berreskuratu nahi duen Etxauzia elkarteko eta Euskal Herria Zuzenean kultur elkarteko kideak euren proiektuak aurkeztuko dituzte mahai berean.

Zikloa bukatzeko, abenduaren 3an "Iparralde gaualdia" antolatuko dugu ZAWPen. Begiz Begi post-rock-talde lapurtarrak joko du eta atera berri duten 'Hatsa' (Baga biga, 2016) disko berria aurkeztuko du 2015eko Banden Lehia irabazi zuen taldeak.

Musikarekin batera, Larresoroko Arrobio eta Hazaparneko Etxeko Bob's Beer garagarno artisauak ekarriko ditugu Deustualdera, Bidasoaren bestaldera ekoizten diren zaporeak dastatzeko. Sarritan, badirudi Iparraldea urrun egoten dela eta ziklo honen bidez distantziak murriztu eta bertoko errealitatea auzora ekarri nahi dugu.

Bezperan, Physis Versus Nomos bakarlari donostiarrak 'Saudade é fatal' (Haize Bazterrak, 2016) aurkeztuko du Mullerenean, Pelaxek eta Mikel Kartonek jo ostean.

Hilaren bigarren astean, Lorea Agirrek eta Idurre Eskisabelek feminismoa eta euskalgintza uztartzen dituen berbaldia emango dute Deustualdean. Pare talde feministarekin batera antolatuko dugu.

Urtea behar moduan bukatzeko, Berbaizuk Gabonetako afaria egingo du abenduaren 16an. Berbaizukide guztiak gonbidatuta zaudete.

Urteurrena hasi da

Arestian esan bezala, urriaren 5ean Berbaizuk bere 25. urteurrena ospatzeari ekin zion. Harkaitz Cano

propio gonbidatu genuen Irakurleen Txokora Beti oporretan (Susa, 2015) liburuaren gainean berba egiteko. Liburuan 14 ipuin ezberdin batzen ditu Canok, oporraldi ezberdinetan eta toki ezberdinetan gertatzen direnak, baina hari eroale dutenak: oporrak ez dira geure paradisuaren frankizia.

20 lagun bildu ginen literaturaren gainean berba egiteko eta berbaldia atsegina izan genuen Bidarten. Liburuak ertz asko dituela aipatu genuen bertaratu ginen lagunok, esaterako, ipuin ugarik emakume protagonista dutela azpimarratu zuen Irakurleen Txokoko irakurle batek.

berbaizu.eus
facebook.com/berbaizu
@berbaizu

http:// sarekada

wwww.euskara.euskadi.eus

Aurrerapena adierazten du azken Inkesta Soziolinguistikoak

Bost urtean behin egiten dute euskararen inkesta soziolinguistikoa Euskal Herri osoan. "Aurrerapausoa eta euskaldunen tipologia berriak hartzen ari diren pisua". Argazki hori utzi du azken 5 urteetako inkesta soziolinguistikoak Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Euskararen ezagutza aurrera doa etenik gabe, eta gazteen kasuan gehiengo zabala da bere burua euskalduntzat jotzen duena. Aurrerabidea gazteen eskutik dator.

---

www.mendifilmfestival.com

43 mendi film hautatu aurtengo sortan

Abenduaren 9tik 18ra egingo den Mendi Film Festivalen zortzigarren edizioan, Sail ofizialean parte hartzeko 43 film aukeratu dituzte. 14 herrialdetatik datozen lanak dira, tartean mundu mailako lau estreinaldi. Era berean, Europan lehenengo aldiz ikusiko dira hamar film. Espainiakoak, AEBetakok eta Erresuma Batukoak dira pelikula gehienak, baina badaude leku exotikoagoetakoak be. Adibidez, Argentinako eta Zelanda Berriko film bana.

---

inun.eus

Inun eta 'Da nola' bere disko berria

Mikel Inunziaga, *Inun*, bakarlariak bigarren diskoa plazaratu du: 'Da nola'. Formari eman dio garrantzia, hau da, melodia eta berbak ondo uztartzeari. Bederatzi kanta dauzka diskoak, denak euskal idazleen poemetan oinarritutakoak, *Estudiante kondenatua* bertso herrikoia izan ezik. Jon Mirande, Karmele Igartua, Miren Agur Meabe, Jon Arano, Itxaro Borda, Bernardo Atxaga eta Castillo Suarezen olerkiak musikatu ditu Inunek. Orain dela urte bi plazaratutako 'Berreginez' diskoaren aldean, bigarren hau "jantziagoa" dela dio Inunek: "Oraingoan instrumentazino gehiago dago".

---

www.bandenlehia.eus

Banden Lehiaren 8. edizioa martxan da

Banden Lehia euskal musika sustatzen duen lehiaketa da. Banda amateurrik onena saritzen du, tokiko taldeak ezagutzera emanez eta, bide batez, euskal musika sarean ere zabalduz. Talde batean jotzen baduzu eta zure ametsak bete nahi badituzu, hemen duzu aukera. Lehiaketa honetatik sortu ziren Enkore, Herri Oihua, Eskean Kristö edota 7. edizioa irabazi duen Begiz Begi taldea.

>> MUSIKA

IRLANDATIK BIRA

Garilak 26 taldeko kideak Irlandan izan dira bere lehen nazioarteko biran. Guztira, sei kontzertu eskaini dituzte bertan, lau hiri ezberdinetan.

Testua: Jaione Ayestaran - **Argazkiak:** Garilak 26 (www.garilak26.eu)

Hilabete baino gehiago igaro da Irlandatik itzuli zirenetik, baina Garilak 26ko musikariek (tartean Ieltxu Gimenez bateria-jotzaile deustuarra) ondo gogoan dute bira hau. Lehen aldia zuten atzerrian, eta "aberasgarritzat" jo dute esperientzia taldekide guztiek. Abuztuaren 24an hasi zuten bidaia honek 11 eguneko iraupena izan zuen eta tartean, Cork, Belfast, Derry eta Dublin hirietan eskaini zituzten kontzertuak. "Irlandan dagoen kultura musikal handiak" harritu ditu gehien. "Asteko egun guztietan joan zaitezke tabernetara kontzertuak ikustera, eta batzuetan, bi edo hiru kontzertu egon daitezke aldi berean, eszenatoki desberdinetan".

Euskal kulturarekiko duten interesa ere "sekulakoa" dela diote, eta "euskaldunekiko duten elkartasuna eta miresmena" gertutik ezagutu dituzte. "*Sarri-Sarri, Txoriak-Txori* eta *Xalbadorren heriotzean* kantak ondo baino hobeto ezagutzen dituzte irlandarrek, eta gurekin batera kantatzen zituzten kontzertuetan". Hori bai, letra asmatuta. Han egon diren bitartean, "ohi baino kontzertu laburragoak" eskaini dituzte, baina publikoak ezin hobeto erantzun duela diote Garilak 26ko musikariek. "Bukaeran, jendea zoriontzera eta gure diskoa erostera hurbiltzen zen".

'Adrenalinaren zain' diskoaz ari dira, noski. Otsailaren 18an aurkeztu zuten, Ieltxu Gimenez deustuarrak grabatu, nahastu eta masterizatu ostean. "Autoekoizpen" honetan taldekide guztien lana bildu da nolabait, baina baita euskal musikagintzan eragin handia duten beste zenbait kolaboratzaileren lana ere. Tartean, Zuriñe Hidalgo (Hesian), Pello Reparaz (Vendetta), Xabi Solano (Esne Beltza) eta Maria Rivero (Siroka) musikagileena. Behar-

bada horregatik, “diskoa osatzen duten zazpi kantak oso desberdinak dira haien artean, bai musika-estiloari begira bai letren esanahien arabera”. Gaiari dagokionean, jendartean ohikoak diren tramak lantzen ditu diskoak, taldekideen aburuz; “gertukoak. Parranda, gaua, feminismoa… denak ageri dira”.

Baina aldi berean oso egoera zehatz bati egin nahi diote erreferentzia lehen disko honekin. “Biran murgilduta gaudenean kontzertu asko jotzen ditugu etengabe, ia atsedenik gabe, eta taula gainean publikoarekin konektatzen dugunean sortzen den atmosfera deskribatu nahi dugu”. Diskoa zortzi eurotan eskuratu daiteke Elkar eta Fnac dendetan, baita Baga Biga ekoiztetxearen webgunean ere (www.baga-biga.eus).

40 kontzertu baino gehiago

Esperientziadunak dira Garilak 26ko musikari gazteak. Azken urtean, 40 kontzertu baino gehiago eman dituzte, “gehienak Bizkaian”. Hala ere, gero eta gehiago ari dira Gipuzkoa aldera bidaiatzen. “Asko harritu gaitu aurten Gipuzkoako kontzertu batzuetan izan dugun harrerak, batez ere gazteen partetik. Kontzertua hasi aurretik, gure kantak abesten zituzten”. Hala ere, plazarik gogokoena Bilbo inguruan kokatzen dute. “Plaza asko egin ditugu, eta denek dute etorkizunean gogoratuko dugun zerbait. Baina aurtengo baten bat aipatu beharko bagenu, besteak gutxietsi gabe, Kafe Antzokiko, San Tomaseko eta Txori Barroteko kontzertuak izango lirateke”.

Eta noski, publikoaren babes horrek bultzada izugarria suposatzen du aurrera begira. Baina orain burua denboraldi amaieran dute musikari gazte hauek. “Kontzertu gutxi geratzen zaizkigu denboraldia amaitzeko eta oraindik ere Munichen eta Durangoko Azokako Ahotsenean jo behar dugu”.

Lan eta lan dabiltza, beraz, Garilak 26ko gazteak, etorkizunari ere erreparatu behar diotela ahaztu gabe. “Epe luzera, gure bigarren lana izango den horretan lanean hasiko gara pixkanaka, eta baita datorren denboraldirako bertsio berriak lantzen ere… edo guk esaten dugun bezala, adrenalinaren zain!”.

www.garilak26.eu

PINTXODROMOA

>>SUKALDARITZA

OSTEGUN GIZEN HERRIKO TABERNAN

Osteguna izaki, Ramon y Cajal kaleko Deustuko Herriko tabernara jo dugu oraingo honetan. Pintxo aukera zabala eskaintzen dute ostegunero, guztira, 115 pintxo. Denek euro bana balio dute. Eskaintzen dute gehiago ere, 13 euroko afaria, begetariano eta beganoentzat molda daitekeena nahi izanez gero.

Zailtasun maila: txikia

Egiteko denbora: 20 minutu

Prezioa: 1,00€

Berezitasuna: aukera zabala eta prezio txikiak

Kontu batzuk

Deustuarrek "oso pozik" hartu dute ostegunetako Herriko tabernako pintxoen eskaintza. "Berrikuntza delako izan du arrakasta", dio Herriko tabernako Gorkak. 115 pintxoren artean tortillak, sandwichak eta ogitarteko zatiak aurkituko ditu gose denak aukeran. Baita begetarianoentzako pintxoak ere. Oso gose diren lagun-taldeek (10 eta 55 pertsonako taldeak) 13na euroren truke afal dezakete Herrikon, edaria barne. Ostegun gizenak ondo eta merke jan-edan nahi dutenentzat.

Deustuko Herriko Tabernako Peio, Gorka eta Guruzne

DEUSTUKO HERRIKO TABERNA

Ramon y Cajal 29 - DEUSTU

facebook.com/Deustuko-Herriko-Taberna

instagram/Deustuko Herriko Taberna

Astelehenetik asteazkenera: 17:00-22:00

Ostegunetik larunbatera: 17:00-01:00

Igandetan itxita

Eta gehiago

Osagai ugari erabiltzen dituzte Deustuko Herriko tabernan bai pintxoak bai ogitartekoak gozatzeko.

Sukaldarien trikimailua izan ohi da ogia labean apur bat berotzea bezeroak ahoratzen duenean epel egon dadin.

Ostiraletan, 20:30etik aurrera, sukaldea zabalik egoten da Herriko tabernan. Ogitartekoak, plater konbinatuak eta errazioak eska daitezke. Aukera zabala da. Eskaintza kontsultatu nahi duenak 'karta' aurkituko du Herrikoko barran.

OSAGAIAK

Arrautza
Patatak
Piper gorri eta berdeak
Kipula
Solomoa
Bakoia
Pernila
Gazta
Txanpinoiak
Kuiatxoak

Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!
Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan...

ZURE PINTXO ONENAK GUREKIN KONPARTITZEKO → Prest?

AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN

kultur txotx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa

IZASKUN ARALUZEA ITZA
Arte Ederretako ikaslea

POLITA IRUDITU ZAIT HEMEN UZTEA

Iritzi artikukulo honetan zer idatzi pentsatzen aritu naiz azken asteotan. Bestalde, aitarekin ibili naiz Zorrozaurreko hainbat toki erretratatzen. Horretan nintzela, ondorengo marrazki hau egin nuen. Hasiera batean ez nuen helburu zehatz batekin egin, baina polita iruditu zait hemen uztea, duela hilabete batzuk Erriberari buruzko artikuluarekin (*Modernoak Londresera!* – PREST! 169) gordetzen duen harremana dela eta.



AINHOA HERRAN ALDAI
Elorri bertso-eskolako kidea

EZ DA NORMALA HORI GERTATZEA

Mutilekin harmailak
guztiz betetzea
eta gero neskekin
hutsik egotea
nitzat ez da normala
hori gertatzea
espero dut honekin
zerbait ikastea

Nahiz eta euren kontra
eduki giroa
jartzen dute mutilek
besteko gogoa
ta ez dute jasotzen
merezitakoa
hemen kirol denetan
dago matxismoa

ERABILI EUSKARA BILBON

darabilbo

WWW.DARABILBO.EUS//////////////////AISIALDIA EUSKARAZ ETA DOHAINIK

IPAR MARTXA

TRIKOTA

SUKALDARITZA

BILBOKO EUSKALTEGI SAREA

WWW.DARABILBO.EUS

EUSKARAZ ERE, NATURALTASUNEZ

Harremanetan euskara naturaltasunez erabiltzea funtsezkoa da zerbitzu ona eman ahal izateko. Euskadiko Kutxan, zurekin euskaraz aritzea ez da aparteko aukera bat, gure nortasunaren eta gure izaeraren berezko ondorioa baizik. Izan ere, geurea zaintzea gustatzen zaigu, geure ezaugarri bereizgarriei eustea eta iraunarazten laguntzea, etorkizuna bermatzeko. Izan ere bada euskara bizitzeko beste modu bat... naturaltasunez.

LABORAL kutxa